

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Baldomera Kortabitarte Atxabal

*Ea, Bizkaia
(1925)*

Aurkibidea



Biografia



1925. urtean jaio zen Ispasterko Solarte auzoko Txumetegi baserrian. Baina 1935. urtean, 10 urtegaz, Bedaronako (Ea) Olabarri baserrira etorri ziren eta ordudanik bertan bizi izan zen. Gurasoak Ispasterrekoak zituen eta sei neba-arrebak osatu zuten familia. Ia mende oso bateko historiaren lekuko, bizi luze eta sakon horretan bizitako hainbat kontu kontatu zizkigun: Errepublikaraiko eskolan bizitakoak zein gerra hasieran eta Kalamuako frontea.

Zintak

EAA-025

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2014-09-12
- **Iraupena:** 83 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

EAA-026

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2014-09-19
- **Iraupena:** 59 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

EAA-027

- **Proiektua:** Eako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2014-09-19
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Abarkak nola egiten ziren

- **Erref:** EAA-026/002
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Abarkak nola egiten ziren. Zezina egiteko txahala hiltzen zen neguaren hasieran. Haren larrua sabaian jartzen zen, tira-tira eginda, iltzeekin ertzetan josita, sikatzeko. Larrua sikatuta zegoenean, ohol baten gainean jarri eta markatu egiten zen, ohol haren forman ebakitzeko. Larru hura uretan ipintzen zen egun batzuetan, biguntzeko. Bigundutakoan, puntak biribildu eta gero abarka-ziriarekin zuloak egin.</p>

2. Abarka-ziria zertarako erabiltzen zen

- **Erref:** EAA-026/003
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:08:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Abarka-ziria nolakoa zen eta nola egiten zitzaizkien zuloak abarkei. Gero larrua zati fin-finak hartu eta zulo guztietatik pasatu eta estutu. Abarka-kordela sartzeko zulo zabaltxoagoak egiten zitzaizkion bi alderdietan.</p>

3. Larruzko abarkak biguntzeko uretan sartu

- **Erref:** EAA-026/004
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:08:32. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Larruzko abarkak gogortuz gero, uretan sartzen ziren berriz biguntzeko. Bigun zeuden artean jantziz gero, erabiliaz, janzten zituenaren hankaren forma hartzen zuten.</p>

4. Aitak abarkak dotoretzeko egiten zituenak

- **Erref:** EAA-026/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Ama Lekeitiora joaten zen plazara larruzko abarkak jantzita. Abarkak dotoreagoak egiteko, zapaten larru zati beltzak sartzen zizkieten abarkei. Eta oraindik dotoreago egiteko, puntan begi beltzak balira legez, bi zulo egiten zitzaizkien, muturraren alde banatan, eta larru beltza handik pasatu. Zapata

konpontzailearengana joaten ziren larru zati beltzen bila. Batzuetan aitak esnetan sartzen zituen abarkak biguntzeko (uretan sartu beharrean), eta askoz zuriagoak geratzen ziren, dotoreagoak.</p>

5. Abarkagintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** EAA-026/006
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Abarkak egiteko, ohol bat erabiltzen zen, larrua forma horretan ebakitzeko. Abarka handiagoak nahi zirenean kanporagotik ebakitzen zen, eta txikiagoak nahi zirenean barruragotik. Abarkak esnetan beratzen ziren, kolorea zuria nahi izanez gero. Bestela, abarkak gogortzen zirenean, uretan edukitzen ziren bigundu arte. Gero kordela ipini eta erabiltzeko prest.</p>

6. Abarka-ziriaren inguruko azalpenak

- **Erref:** EAA-026/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:13:18. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Abarka-ziria erabiltzen zen bai abarkei zuloak egiteko eta baita josteko ere. Orratz lodi baten antzekoa zen.</p>

7. Galtzerdiak beharrean, "abarka-mantak"

- **Erref:** EAA-026/008
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:19:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Galtzerdiak beharrean, "abarka-mantak" erabiltzen zituen aitak batzuetan. Nolakoak izaten ziren. Aitak "abarka-mantak" nola jartzen zituen azaltzen du.</p>

8. Ume txikientzat abarka bigun-bigunak

- **Erref:** EAA-026/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:21:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Ume txikientzat, oinez ikasteko, abarka bigun-bigunak egoten ei ziren denda guztietan. Kalerako zapatak erosten zitzaizkien.</p>

9. Abarkak apurtutakoan, "abarka-zopittie"

- **Erref:** EAA-026/011
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Abarkak konpondu ere egiten ziren. Zuloren bat egiten bazitzaien, beste abarka batzuk egiterakoan sobratutako larru zatia uretan bigundu eta komeni zen eran ipintzen zitzaizkien, zuloa estaltzeko. "Abarka-zopittie" esaten zioten.</p>

10. Ardi-larrua uztarria estaltzeko

- **Erref:** EAA-026/015
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:27:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ganadua uztartuta zegoenean, uztarriaren gainean ardi-larrua jartzen zen, bere lana eta guzti. Apaingarri gisa eta erak ez bustitzeko izaten zen. Gaur egun sokekin ere lotzen dira uztarriak, baina lehen beti erak erabiltzen ziren. Zapak borla gorriekin jartzen zitzaizkien idiei, dotoretzeko.</p>

11. Zapak, ganadua babesteko

- **Erref:** EAA-026/016
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:27:46. **Bukatu:** 00:29:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Erak lotzerakoan idiek edo behiek minik hartu ez zezaten jartzen ziren zapak. Gero borlak jartzen zitzaizkien, apaingarri gisa.</p>

12. Inguruetan idi gutxi

- **Erref:** EAA-026/018
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:30:35. **Bukatu:** 00:31:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Inguruetan ez zegoen idi asko. Probetarako egoten ziren idiak. "Karretero" lanetan basotik zuhaitz handiak ateratzen ibiltzen zirenek ere izaten zituzten idiak. Bestela, baserrietan gutxi.</p>

13. Uztargilea etxerik etxe

- **Erref:** EAA-026/020
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:38:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

<p>Berriatua inguruko gizon bat ibiltzen zen etxerik etxe uztarriak egiten. "Buztarri" deitzen zioten. Gerezia ei zen ona uztarriak egiteko. Ebaki eta gero egurra uretan eduki behar izaten ei zen. Uztargileak etxera etorri eta neurria hartzen zion uztartutako ganaduari.</p>

14. Gurdiaren inguruko azalpenak

- **Erref:** EAA-026/022
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:39:12. **Bukatu:** 00:42:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Gurdiak nolakoak izaten ziren. Gurdiaren zatiak. Gurpil handi bi, eta atzera tronko biribil luzea; gurpilen artean gurdi-ardatza.</p>

15. Labeak etxeen kanpoaldean

- **Erref:** EAA-026/024
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:42:48. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Gerra garaian auzokoen artean labe bakarra izaten zuten. Gerora hasi ziren bakoitza bere labea egiten. Labea beti etxe kanpoaldean egoten zen.</p>

16. Bedaroako ganadu ermandadea

- **Erref:** EAA-026/027
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:49:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Ganaduen ermandadea zegoen Bedaroan. Euren etxean ganaduren bat hil ere egin zen, alpapa gehiegi jan zuelako edo. Orduan, ermandadekoei abisatzen zitzaien ganadua ikustera etortzeko. Ganadua aprobetxatzeko moduan egonez gero, harakinak zatitu egiten zuen eta ermandadeko kideei banatzen zitzaien okela.</p>

17. Txerri-hiltzea; odolosteak auzora

- **Erref:** EAA-026/030
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:53:04. **Bukatu:** 00:56:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Txerri-hiltzea nola izaten zen. Mahai gainean jartzen zen txerria hiru-lau lagun artean eta harakinak kakoa sartzen zion paparretik. Odol-hustutakoan, ileak erre egiten zitzaizkion. Gero trapu busti batekin garbitu egiten zen, eta tripak kendu. Hoztutakoan, zatitu. Gero, odolosteak auzokoei banatzen zitzaizkien. Berak ez du ezagutu odolosteak abadeari eroateko ohitura.</p>

18. Gabon-gaueko ogiaren zati bat urtebetez gordetzeko ohitura

- **Erref:** EAA-026/031
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:56:52. **Bukatu:** 00:58:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Gabon-gauerako ogia oso-osorik gordetzen zen. Ogia ebakitzerakoan, ogiari kentzen zitzaion lehenengo zatitxoa urtebetez gordetzen zen, eta hurrengo gabon-gauean txakurrei eta katuei ematen zitzaien, esnetan bustita. Batzuek txakurrak ez amorratzeko izaten zela diote, baina berak ez du halakorik entzun izan.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com